



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 6a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, neurriak ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).
- Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen erreko-nozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (9. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Almandoz eta Arizkun-Elbete herrien eskaerei erantzun diezaien, zundaketen baimena geldiarazte aldera. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan. Osasun Batzordeak onetsia (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Vianako Andre Maria eliza administrazio publikoei lagatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, 30 kilometroko ingurubiran turismo-zonarik ez daukaten Nafarroako kultur intereseko ondasunei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).

- Galdera, Eliza Katolikoaren jabetzakoak diren kultur intereseko ondasunetan meza emateko denbora doako sarraldietarako denboraren parte gisa zenbatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak kultur intereseko ondasuntzat hartzen diren higiezinak doan bisitatzeko eskubi-dea betetzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, zaharberitze-obrak finantzaketa publikoarekin egiteko Kultura eta Kirol Departamentuak entitate publikoekin dituen lankidetzeta-hitzarmenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Errepide Planaren egoerari eta eginiko jarduketei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, populazio-jaitsiera etengabea izan duen zona batean dauden Nafarroako kultur intereseko ondasunei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Mendigorriko hondakin organikoen biometanizazio plantaren ingurumen-baimen integratuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Fiterora doan NA 6900 errepidea hobetzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kide hautatzeko. hautagaietako bat erretiratu da (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, neurriak ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko apirilaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, neurriak ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, neurriak ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira

HITZAURREA

2021eko abenduaren 29an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen abenduaren 28ko 20/2021 Legea, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Beste neurri batzuek gain, haren 2. artikuluan aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimentzen du, zeinak barnean hartuko baititu 2020ko abenduaren 31 aurreko hiru urteetan, gutxienez, aldi baterako langileek etenik gabe bete dituzten egiturazko lanpostuak, aurrekontuzuzkidura baldin badute, egon nahiz ez egon lanpostu zerrendetan, plantilletan edo administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeke erabiltzen dituzten bestelako sistemen barnean. Egonkortze tasa horri erantsiko zaizkio lege beraren seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan aurreikusitako lanpostuak; horiek iraupen luzeko enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdi batean eskaini behar dira.

tako lanpostuak; horiek iraupen luzeko enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdi batean eskaini behar dira.

Bestalde, Nafarroako Alderdi Sozialistak, Geroa Baik, Podemos-Ahal Duguk eta Ezkerreko Alderdiak sinatutako programa-akordioak –"Programa-akordioa bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako (2019-2023)"–, 3.1 apartatuko 36. puntuan, akordioaren gutxienezko eduki gisa ezartzen du atzerriko hizkuntzak irakatsi eta ikasteko curriculum- eta antolakuntza-egitura diseinatu eta garatzea, bai eta araudi bat onartzea ere, hizpide dugun gaiari dagokionez irakasle plantillak eta irakasle lanpostuen hornikuntza arautuko dituen.

Nafarroako kasuan, hain zuzen ere atzerriko hizkuntzak ikasteko programak ezarriak dituzten ikastetxeetako irakasle plantilletan dago aldibaterakotasun tasarik handiena.

Atzerriko hizkuntzak ikasteko programak ezartzen direnean, arlo edo irakasgairaren bat atzerriko hizkuntza batean ematen duten irakasleek frogatu behar dute hezkuntza-administrazio eskudunak ezarritako jakite maila dutela hizkuntza horretan.

Atzerriko hizkuntzak ikasteko programetan aldi baterako kontratu administratiboa duten lanpostuak egonkortzea lortu behar da, eta lanpostu horiek funtzionario berriei bete, administrazio publikoetako aldibaterakotasuna murrizte aldera, hala eskatzen baitute Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak eta arestian aipatutako 2019-2023 legegintzaldirako programa-akordioak. Horretarako, irakasle kidegoetarako sarbideari buruzko Estatuko araudiak ez duenez betekizun hori aurreikusten, Nafarroak hezkuntzaren eta funtzio publikoaren alorretan dituen eskumenak baliatu beharra dago. Eskumen horiek eman zaizkio Nafarroako Foru Eraentza

Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. eta 49.1.b) artikuluetan eta Nafarroako Administrazio Publiko-en Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 98. artikuluan.

Hortaz, foru lege honetan aurreikusten da irakasle lanpostuak sortzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan, eta lanpostu horiek nola lortu eta beteko diren arautzen da. Atzerriko hizkuntzen jakite maila zehatz bat frogatzeko eskatuko da, atzerriko hizkuntzak ikasteko programak ematen dituzten ikastetxeetan aritu ahal izateko.

Hori guztia gogoan, eta asmotan diren helburuak iristea errazteko, honako foru lege hau onetsi behar da.

1. artikulua. Unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuak sortzea Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuan.

1. Nafarroako Gobernuak atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuak sortuko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan, hezkuntza sistemaren beharrezan araberaz.

2. Lanpostu horien araubidea izanen da Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginean ezarritakoa (abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsi zuen testu bategin hori). Lanpostu horiek betetzen dituzten funtzionarioak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartuko dira ondorio guztietarako.

2. artikulua. Lan publikoaren eskaintzak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionario izateko.

Aurreko artikuluan aipatu lanpostuak betetze aldera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako lan publikoaren eskaintzak egiten direnean, atzerriko hizkuntzaren eskakizuna eta lanpostuaren hizkuntza (gaztelania edo euskara) egiaztatzea behar diren lanpostuak eskainiko dira.

3. artikulua. Atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuetarako deialdiak.

Hezkuntza Departamentuak zehaztuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuetarako hautapen prozeduren deialdietan, nola

egiaztatuko diren arau honen eranskinean ageri diren titulazioak edo ziurtagiriak.

Atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuetarako hautapen probak lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntzan egiten dira (gaztelaniaz edo euskaraz).

4. artikulua. Lanpostuak betetzea.

Aurreko artikuluan aipatutako sarrera-deialdietan hautatzen diren funtzionarioek, lurralde mugikortasunaren ondorioetarako, soilik parte hartzen ahalko dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere kudeaketa eremuaren barnean deitzen dituen lekualdatze lehiaketa autonomiko eta mugikortasun-prozeduretan eta hautaprobak gainditzeko izan duen atzerriko hizkuntzaren eskakizuneko postuetarako, salbu eta postuak kentzen direnean, kasuan kasuko deialdian zehazten denaren arabera.

5. artikulua. Lanpostuak aldi baterako betetzea.

Hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak, 3. artikuluan aipatutakoak, betetzeko sarrerako hautapen prozedurak amaitzen direnean, Hezkuntza Departamentuak atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostu horiek aldi baterako betetzeko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak eratuko ditu, bat etorri aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak kudeatzeko arauekin.

Izangaien zerrenda horiek lehentasuna izanen dute atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak betetzerakoan.

Lehen xedapen gehigarria. Salbuespenezko lehiaketa-deialdia.

1. Atzerriko hizkuntzaren titulazio eta ziurtagiriaren egiaztapena, 3. artikuluan aurreikusten dena, aplikatzeko izanen da Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan aipatzen den salbuespenezko lehiaketa-deialdian.

2. Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan aipatzen den salbuespenezko lehiaketa-deialdian ez da izangai zerrendarik eratuko irakasle lanpostuetarako aldi baterako kontratuak egiteko.

Bigarren xedapen gehigarria. Aplikatu beharreko araudia.

1. Ez arau honetan, ez Irakaskuntzako Funtzio Publikorako Sarbidea arautzen duen abenduaren

27ko 17/2017 Foru Legean, ez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuak lortzeko eta betetzeko Nafarroako Foru Komunitateak onetsitako gainerako arauetan aurreikusten ez diren gaiei dagokienez, irakasle kidegoentzat gai horiek arautzen dituen Estatuko araudia aplikatuko da, hala xedatzen baitu 98. artikuluan abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duenak.

2. Nafarroako Gobernuak behar diren izapideak eginen ditu, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz hautatzen diren funtzionarioak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetan sar daitezten lortzeko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ingelesez ikasteko Programa beste ikastetxeetan egiteko eskubidea.

1. 2022-2023 ikasturtean ingelesez ikasteko programa eskaintzen duten ikastetxeen kopurua nabarmen jaisten ez den bitartean, 2023-2024 ikasturteetik Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehenengo maila aipatu programarekin hezkuntza eskaintzarik ez duten ikastetxeetan hasi beharko luketen ikasleek, eskubidea izanen dute ingelesez ikasteko programa egiteko ikastetxeen sareko departamentu bereko beste ikastetxe publiko batzuetan erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan. Aurreikuspen bera aplikatuko da Haur eta Lehen Hezkuntzako gainerako mailetan, beti ere ikasleen bizilekuaren aldaketa denean, haiek programan jarraitzea bermatze aldera.

Horretarako, Hezkuntza Departamentuak behar diren neurriak hartuko ditu eta behar diren baliabide pertsonalak, teknikoak eta materialak eskainiko ditu, aurreko paragrafoan xedatutakoa gauzatzeko, Nafarroako zonalde jakin batzuetako

ikasleen ekitatea eta aukera berdintasuna bermatzeko kontuan hartu den bezala.

2. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio ingelesez ikasteko programa pixkanaka ezartzea baloratzeko, programa horretan eskolatzeko eskaeretatik gehienak, gutxienez ere, aurkeztu diren ikastetxeetan, erregelamenduz ezartzen denarekin bat.

Laugarren xedapen gehigarria. Programa hizkuntza-eredu bihurtzea.

Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio, behin ingelesez ikasteko programako irakasleak egonkortzeko prozesua eginda eta programa horretan aniztasunari erantzuteko neurri egokiak ezarrita eta ebaluatuta, prozedura bat abian jar dezan aipatu programa hizkuntza-eredu bihurtzeko, zeina, kasua bada, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan pixkanaka ezarriko den.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetzen diren xedapenak.

Indarrik gabe gelditzen dira arau honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Eranskina aldatzea.

Hezkuntza Departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio arau honen eranskinean ageri diren atzerriko hizkuntzak, titulazioak eta ziurtagiriak aldatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. Arau-garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio arau honetako aurreikuspenak garatzeko.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

ALEMANA:

ENTITATEA	ZIURTAGIRIA	
Hizkuntza eskola ofizialak	Alemaneko C1 mailako edo C1 maila aurreratuko ziurtagiria	Alemaneko C2 mailako edo C2 maila aurreratuko ziurtagiria
	Hizkuntza Eskola Ofizialeko hizkuntza ikasketa espezializatueta lehen mailako goi zikloko gaitasun ziurtagiria, alemanekoa	
Goethe Institut TestDaf-Institut	Goethe-Zertifikat C1	GOETHE-Zertifikat C2 (GZ C2)
	C1 Oberstufe Deutsch (OD)	Zentrale Oberstufenprüfung ZOP
	PWD (Prüfung Wirtschaftsdeutsch International)	Kleines Detusches Sprachdiplom (KDS)
	TestDaF Nivel 5 (Test Deutsch als Fremdsprache)	Grosses Deutsches Sprachdiplom (GDS)
ÖSD (Österreichisches Sprachdiplom Deutsch)	ÖSD Zertifikat C1	ÖSD Zertifikat C2
		ÖSD Zertifikat C2 Wirtschaftssprache Deutsch C2 (WD)
Kulturministerkonferenz (KMK)	Deutsches Sprachdiplom Stufe 2 (DSD II)	—
The European Language Certificates (telc)	telc Deutsch C1	telc Deutsch C2
Germaniar Filologiako lizentziaduna edo gradu baliokidea		
Alemaneko Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziaduna edo gradu baliokidea.		
Atzerrian unibertsitate tituluren bat lortu izana ikasketa osoak alemanez eginda, eta titulu hori Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak homologatuta egotea.		

FRANTSESA:

ENTITATEA	ZIURTAGIRIA	
Hizkuntza eskola ofizialak	Frantseseko C1 mailako edo C1 maila aurreratuko ziurtagiria	Frantseseko C2 mailako edo C2 maila aurreratuko ziurtagiria
	Hizkuntza Eskola Ofizialeko hizkuntza ikasketa espezializatueta lehen mailako goi zikloko gaitasun ziurtagiria, frantsesekoa	
Aliantza Frantsesa Frantziako Hezkuntza Ministerioa	Diplôme Approfondi de Langue Française (DALF C1)	Diplôme Approfondi de Langue Française (DALF C2)
	Diplôme Supérieur d'Etudes Françaises Modernes (DS)	Diplôme de Hautes Etudes Françaises (DHEF)
	Test de connaissance de Français (TCF) C1	Test de connaissance de Français (TCF) C2
Chambre de Commerce et d'industrie de Paris	Test d'Evaluation de Français (TEF) C1 (699-833)	Test d'Evaluation de Français (TEF) C2 (834-900)
Frantses Filologiako lizentziaduna edo gradu baliokidea		
Frantseseko Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziaduna edo gradu baliokidea.		
Atzerrian unibertsitate tituluren bat lortu izana ikasketa osoak frantsesez eginda, eta titulu hori Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak homologatuta egotea.		

INGELESA:

ENTITATEA	ZIURTAGIRIA	
Hizkuntza eskola ofizialak	Ingeleseko C1 mailako edo C1 maila aurreratuko ziurtagiria	Ingeleseko C2 mailako edo C2 maila aurreratuko ziurtagiria
	Hizkuntza Eskola Ofizialeko hizkuntza ikasketa espezializatueta lehen mailako goi zikloko gaitasun ziurtagiria, ingelesekoa	
Cambridge English Language Assessment	CAE (Certificate in Advanced English)	CPE (Certificate of Proficiency in English)
	IELTS 7-8	IELTS 8.5-9
	LinguaSkill C1	
IELTS (International English Language Testing System)	7 – 8	8,5 – 9
ETS (Educational Testing System)	TOEFL iBT 110-120 (Internet Based Test)	TOEFL iBT >120 Internet Based Test)
	TOEIC C1 (Test of English for International Communication) Four skills: ≥1345	
British Council	APTIS C1	APTIS C2
Trinity College London	ISE III (Integrated Skills in English)	ISE IV (Integrated Skills in English)
LanguageCert International ESOL	Expert C1	Mastery C2
Pearson	PTE General Level 4	PTE General Level 5
Ingeles Filologiako lizentziaduna edo gradu baliokidea		
Ingeleseko Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziaduna edo gradu baliokidea.		
Atzerrian unibertsitate tituluren bat lortu izana ikasketa osoak ingelesez eginda, eta titulu hori Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak homologatuta egotea.		

Foru Lege proposamena, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du (10-22/PRO-00009).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKI DA:

1. Agintzea Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Lanerako, laguntzarako edo eginkizun sozialeko animalien erabileraren errealitate soziala eta funtzionalak arazo larriak aurkitzen ditu bere jasangarritasun eta garapenerako, modu orokorrean sartzen baitira lagun egiteko animalien babeserako araudietan –animalia horiek, Espainiak 2017ko ekainaren 23an berretsitako Lagun Egite-

ko Animalien Babesari buruzko Europako Hitzarmenaren arabera, dira gizakiak dauzkanak edo gizakiak edukitzeko bideratuak, bereziki bere etxean, aisialdirako eta haren konpainia izateko; izan ere, haien jarduera nagusia ez da konpainia egitea eta ez dira etxean bizitzen.

Gainera, lanerako, laguntzarako edo eginkizun sozialeko animaliak erabiltzen diren jarduera askotan bada jada araudi sektorial joria (hala nola zezen ikuskizunetan parte hartzen duten animaliak, hasierako testuan salbuetsi zirenak).

Artikulu bakarra. Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen 4. eta 5.3. artikulua aldatzekoa.

Ba. Honela idatzita agertuko da 4. artikulua:

«4. artikulua. Aplikatzekoak diren baztertzak.

Lege honen aplikazio-esparrutik baztertuta daude:

1. Ekoizpenerako animaliak, foru lege honen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

2. Basa faunako animaliak, ehizakitzat hartutako basa faunako espezieak, subespezieak eta populazioak eta araututako ehiza-jarduera.

3. Zezen-ikuskizunetan erabiltzen diren animaliak.

4. Esperimentaziorako eta beste xede zientifiko batzuetarako erabiltzen diren animaliak.

5. Parke zoologikoetan dauden animaliak.

6. Lanerako animaliak, laguntzakoak edo eginkizun soziala dutenak».

Bi. Honela idatzita agertuko da 5,3. artikulua:

«3. Lanerako animaliak, laguntzakoak edo eginkizun soziala dutenak: arlo sozialeko jarduera edo zeregin zehatz bat egiten dutenak (ez du zertan jarduera ekonomiko batekin lotura izan behar), hala nola zaintzarako txakurrak, artzain-txakurrak, laguntza-txakurrak, ehizarako txakur edo hudoak, txakur bilatzaileak (zizak, boilurra...), erreskate-txakurrak eta segurtasun indar eta kidegoek erabiltzen dituzten txakurrak, ehiza-hegaztiak, silbestrisimo-hegaztiak, eperrak eta beste dei-hegazti batzuk, hazkuntzarako eta uso mezulariak trebatzeko usoak, kirol jarduera federatuetan baliatzeko beste animalia batzuk, etab.».

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena (10-22/PRO-00010).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI DA:

1. Agintzea Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo fun- tzionario publikoek eragindako moti- bazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta errepara- zioari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 10eko 16/2019 Foru Legeak arautzen du eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin-

tzen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Nafarroako sistema. Zehazki, 12. artikuluan, biktimek osasungintzako arretarako nahiz kalte fisiko eta/edo psikologiko eta materialengatiko ordainak jasotzeko daukaten eskubidea zehazteari dagokionez, igorpena egiten du apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak, Terrorismoaren biktimei laguntzekoak, xedatutakora. Igorpen horrek problema batzuk sortzen ditu aplikatua izateko.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak erreparazio-neurrien multzo bat ezartzen du (kalte-ordainak, laguntzak), Estatuak eman litzakeen horien osagarri gisa. Halatan, Nafarroako kalte-ordainen eta laguntzen zenbatekoa izanen da Estatuako Administrazio Orokorrek ematen dituen kopuruen % 30ekoa. Alabaina, motibazio politikoko biktimei ez die Estatuak inoiz kalte-ordainik eman, eta horrek ginderamatzake existitzen ez den estatu-laguntza bati osagarri halako bat jartzearen ezintasunera.

Baldin eta % 30aren laguntza osagarria motibazio politikoko egintzen biktimentzako laguntzen muga gisa aplikatuko balitz, horrek esan nahi luke legeztatu egiten dela tratu-desberdinkeria egotera nabari bat: batetik leudeke terrorismoaren biktimak, zeinek Estatuaren kalte-ordaina gehi jada aipaturiko osagarri autonomikoa jasotzen baitute, eta bestetik, motibazio politikoko biktimak, zeinek kalte-ordain gisa % 30 baizik ez bailukete jasoko, jasan eta frogaturiko kalteengatik. Horrekin ez da tratu-berdintasunik bermatzen biktima-talde desberdinen artean (terrorismoaren biktimak eta motibazio politikoko biktimak), halatan kontraesan nabarmenean eroriz biktimen diskriminaziorik ezaren eta tratu mesedegarriaren printzipioarekiko, zeina martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen 5.3 artikulua jasotzen baitu.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Legean, kalte-ordaina izan dezaketen kalte psikiko dira baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa. Horrenbestez, terrorismoaren biktimentzako foru araudia hertsiki aplikatuz gero, motibazio politikoko biktimen kasuan ezin izanen zaie kalte-ordainik eman ezintasun iraunkor partzialari loturiko kalte psikiko edo psikologikoen kasuei, ez eta baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrei edo aldi baterako ezintasunari ere, are Estatuak kalte-ordain horiek terro-

rismoaren biktimentzat aurreikusi egiten baditu ere.

Bestetik, martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian Nafarroako Gobernua gaitzen da erregelamenduzko garapena egin dezan eta, zehazki, terrorismoaren biktimei buruzko legediak aurreikusitako kalte-ordainak eta laguntzak doitu eta egokitu ditzan legedi horren helburuetara. Erregelamenduzko garapenean biktimen kolektiboek (terrorismoaren eta motibazio politikokoek) jasotako kalte-ordainak elkarrengana hurbiltzeko aurreikusten den doikuntza horrek eragozpen teknikoak ditu, begi-bistako arriskua izanik gehiegizko araupetze batean erortzea, mugatua baita erregelamendu bidezko doikuntza-ahalmen hori. Doitzeak ez du legea eraldatu edo mutatzeko modurik ematen; hori dela-eta, erregelamendu bitartezko doikuntza horrek ezin izanen du kolektibo horien arteko tratu-desberdinkeria onbideratu.

Azken batean, bai 12. artikulua aurreikusitako igorpenak bai Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenak problema-multzo bat dakarte aplikatuak izaterakoan, foru lege mailako araugintzazko konponbidea behar dutenak.

Hori guztia dela-eta, aldaketa honek xede du Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Legerako igorpena gainditzea, motibo politikoengatik indarkeria jasan duten pertsonen aldeko prestazio zehatzak ezartzea, biktima-kolektibo bereiztuen arteko babes-berdintasuna bermatzea (terrorismoaren biktimak/indarkeria politikoaren biktimak) eta, azkenik, behar den segurtasun juridikoa ekartzea biktimei eta laguntzen xede diren pertsonen.

Artikulu bakarra. Aldatzea 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

Bat. 2. artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da. Testu hau izanen du:

«Baldin eta, pertsona baten giza eskubideen urraketaren zuzeneko ondorio gisa, haren heriotza gertatu bada, haren kausadunek eskubidea izanen dute biktima-aitorpena eskatzeko eta diruzko konpentsazioa jasotzeko, foru lege honen 12.5 artikuluan horretarako ezartzen diren erregelei jarraikiz».

Bi. 9. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

«1. Eskabideak foru lege honen esparru subjektiboan aipatzen diren pertsonen sustatu eta aurkeztu ahalko dituzte. Legitimazio aktiboa izanen dute, halaber, aipatutako esparrukoak izan ez arren foru lege honen aplikazio eremuan sartzen diren egitateak zuzenean eta zorrozki ezagutu dituzten pertsonen. Eskabide horiek lau urte eta sei hilabeteko hasiera-epean aurkeztu ahalko dira, arlo horretan eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindua, eskabide-aurkezpenerako epea irekitzen duena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera».

Hiru. 11. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Honako testua izanen du aurrerantzean:

«3. Ebazpena hilabeteko epean jakinaraziko zaio interesdunari, eta, kasua bada, bidezko diren errekurtsioak aurkezteko aukera adieraziko zaio.

Prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hamasei hilabetekoa izanen da, salbu eta artikuluko honen 1. apartatuan oinarri harturik epea luzatua izan den kasuan».

Lau. 12. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«12. artikulua. Biktima deklaratzearen ondorioak.

1. Foru lege honen xedapenen arabera biktima deklaratuak diren pertsonen aitortuta edukiko dituzte, osasun arretaz gainera, kalte fisiko edo/eta psikologikoengatik eta kalte materialengatik ordain ekonomikoak.

Ordain ekonomiko horiek bateragarri dira gertakari berengatik beste erakunde batzuegandik jasotzera zilegituta egon litezkeeneko beste kopuruekin, baldin eta foru lege honen babesean aitortuak izan diren ordain ekonomikoak baino baxuagoak badira. Ondorioz, beste entitate batzuegandik jasotako edo haiek aitortutako kopuruak baxuagoak direnean Foru Komunitateko Administrazioak emandakoak baino, hartzaileak azken horrengandik jasoko du bi laguntza horien arteko aldea bakarrik.

2. Jasandako kalte fisiko eta/edo psikologikoengatik ordain ekonomikoen zenbatekoak honakoak izanen dira:

- a) Heriotzagatik: 250.000 euro.
- b) Baliaezintasun handiagatik: 500.000 euro.
- c) Ezintasun iraunkor absolutuagatik: 180.000 euro

d) Ezintasun iraunkor osoagatik: 100.000 euro.

e) Ezintasun iraunkor partzialagatik: 75.000 euro.

f) Aurreko apartatuetan aurreikusitako kalte-ordainen zenbatekoak handiagotu eginen dira kantitate finko batean, kasuko errenta-adierazle publikoaren 20 hilabete-kuotakoa, heriotza-unean edo lesioa eragin zuen indarkeriazko ekintzaren unean biktimarekiko mendekotasun ekonomikoa zeukaten ondorengo ahaideetako edo harreraren hartutako adingabeetako bakoitzarengatik.

g) Baliaezintasun gabeko lesio iraunkorregatik: zenbatekoa zehaztuko da eskabidea aurkezteko unean indardun den sistema erabiliz, zeinaren bidez baloratzen baitira pertsonen zirkulazio-ezbeharretan eragindako kalte eta galerak, eta baremo gisa harturik lan-istripurik edo lanbide-gaixotasunetik eratorritako behin betiko eta baliaezintasunik gabeko lesio, mutilazio eta deformazioengatik kalte-ordainen zenbatekoei buruz gizarte-segurantzako legedia aplikatuz suertatzen den hori. Guztizko zenbatekoak ez du ezein kasutan gaindituko ezintasun iraunkor partzialerako adierazitako zenbatekoa.

h) Aldi baterako ezintasunagatik: izanen da aldi baterako ezintasuneko egoeran aurkitzen deneko epeari dagokion eguneroko errenta-adierazle publikoaren bikoitza. Mugatzat izanen du hileko 18 kuota (Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publiko/egun x 2, hileko 18 kuotako mugaraino). Ondorio horietarako, ulertuko da biktima aldi baterako ezintasun egoeran dagoela osasungintza-arreta jasotzen duen eta bere lanbidean jarduteko edo bere ohiko jardueretan aritzeko ezinduta dagoen bitartean.

i) Mendekotasun-egoeragatik, alorreko departamentu eskudunak biktimei edozein gradu eta mailatan aitortua, honako portzentajeetan gehituko dira Foru Komunitateko Administrazioak emandako kopuruak:

– 100eko 30eko igoera, III. gradua –mendekotasun handia, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

– 100eko 20ko igoera, II. gradua –mendekotasun larria, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

– 100eko 10eko igoera, I. gradua –mendekotasun moderatua, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

Zenbateko horiek bateragarriak izanen dira biktimiek jasotzeko eskubidea duten beste edozein

zenbatekorekin, non eta ez diren kontzeptu beraren ondoriozkoak.

3. Nafarroako Foru komunitateko Administrazioak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun zerbitzuaren bitartez, beharrezkoa gertatzen den osasungintza-arreta eta/edo arreta psikologikoa emanen die biktima deklaratuak diren pertsonen, foru lege honetako xedapenei jarraikiz, ahal den heinean berreskuratze aldera kasuko gertakaria baino lehenagoko baldintzak. Hori ezinezkoa denean, eta beste zentro batzuetan eman beharrezkoa denean, administrazio horrek eskaturiko zerbitzu eta tratamendu bakoitzuen ondoriozko gastuak ordainduko dira.

Osasungintza-arretak barne hartuko du tratamendu medikoa, protesi-ezarpena edo horien aldizkako hobekuntzak, bai eta errehabilitazio-premiaren ondoriozko gastuak ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak diagnostikaturikoak direnean.

Arreta psikologikoa jasotzen ahalko da, medikuak aurretiaz horretarako agindua emanik, indarkeriazko ekintzak eragindako edo agerian utzitako nahasmendu psikologikoen agerpenetik aurrera.

4. Kalte materialengatik ordainketek barne hartuko dituzte etxebizitzetan, gauzaki pertsonaletan, merkataritza- edo industria-estabazimenduetan eta ibilgailuetan egin direnak. Kalte-konponketak barne hartuko ditu lehenagoko bizigarritasun- edo funtzionamendu-baldintzak berreskuratze beharrezkoak diren urratsak.

Kalte materialen ordainketek ordeko izaera izanen dute administrazio publikoek aitorturikoen edo aseguru-kontratuetatik eratorritakoen aldean, eta kontzeptu horiengatik jasotako kopuruan murriztuko dira.

5. Heriotzagatik kalte-ordainketarako eskubidearen titular izanen dira, erreferentziatzen heriotzaren gertaeguna harturik:

a) Hildako pertsonaren ezkontidea, legalki bananduta ez bazeuden, edo gutxienik heriotza-unearen aurreko bi urteetan zehar harekin antzeko afektibitate-harremanez elkarturik modu iraunkorrean bizi izandako pertsona, salbu eta ondorengotza amankomuna izan bazuten, ezen kasu horretan nahikoa izanen da elkarbizitza soila; eta hildakoaren seme-alabak.

b) Arestian aipatuetakorik ez egonez gero, hartzaile izanen dira, lehentasun-hurrenkeran eta hurrenkeran jarraian datozenak bazter utzirik, hildakoaren gurasoak, anai-arrebak, bilobak eta aitona-amonak.

c) Arestian aipatuetakorik ez egonez gero, elkarbizitzan partaide izandako pertsonaren seme-alabak, eta hildakoak familia-harrera iraunkorren edo adopzioarrekoan hartutako adingabeak, ekonomikoki haren mende baldin bazeuden.

Aurreko apartatuko paragrafo batean berean elkarrekin suertatzen badira zenbait onuradun, kalte-ordainketari dagokion zenbatekoaren banaketa honela egingen da:

a) Apartatu horretako a) letran azaltzen den kasuan, kopurua erdibanatu egingen da, erdi bat dagokiola legalki banandu gabeko ezkontideari edo elkarbizitza-partaideari, eta bestea seme-alabei. Azken erdi hori zati berdinetan banatuko da.

b) Apartatu horretako b) letran azaltzen den kasuan, kopurua zati berdinetan banatuko da ahaidetasun-lotura bereko pertsonen artean.

c) Apartatu horretako c) letran azaltzen den kasuan, kopurua zati berdinetan banatuko da batera suertatzen diren onuradunen artean.

6. Artikulu honen ondorioetarako, pertsona batek zenduarekiko mendekotasun ekonomikoa duela ulertuko da heriotza-unean horren kontura bizi bazen osoki nahiz partzialki, ez bazuen eskuratzen, urteko kontaketan, une hartan indarrean zegoen errenta-adierazle publikoak urteko kontaketan ere zeukan zenbatekoaren ehuneko 150 baino gehiagoko edozein izaeratako errenta edo diru-sarrerarik».

Bost. 16. artikuluko 5. apartatua aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

«5. Administrazio publikoko kide izan gabe Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeko kide diren pertsonen eskubidea izanen dute, beren eginkizunetan aritzeagatiko ordain gisa, Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez ezartzen diren dietak eta lokomozio edo bidaiatze-gastuengatiko sariak jasotzeko. Egun bakoitzeko ez da sortuko dieta bat baino gehiagorako eskubiderik».

Sei. Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

«Bigarren xedapen gehigarria. Kredituak gaitzea.

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, xedatuko du foru lege honek ezarritako laguntzei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren kredituak gaitzea».

Zazpi. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

«Hirugarren xedapen gehigarria. Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak jaulkiko ditu foru lege honetan jasotako aurreikuspenak garatu eta aplikatzeko».

Azken xedapen bakarra. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Almandoz eta Arizkun-Elbete herrien eskaerei erantzun diezaien, zundaketen baimena geldiarazte aldera.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Almandoz eta Arizkun-Elbete herrien eskaerei erantzun diezaien, zundaketen baimena geldiarazte aldera (10-22/MOC-00045).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako Batzordean eztabaidatzeko:

Almandozen (Baztan) harrobiko jarduera gartzten duen enpresak zundaketak egiteko baimena eskuratzeko izapide administratiboa abiarazi du, Baztango udalerriko Almandoz, Arizkun eta Elbete herrietan ofita lortzeko egon daitezkeen zonaldeak ikertze aldera.

“Arizkun Sur” proiektuak Elbeten eta Arizkunen zundaketak egitea jasotzen du, eta Uzqueta 2 proiektuak almandozen.

2013an Baztango Batzar Nagusiak baztertu egin zuen enpresa sustatzailearen eskari bat, zeinak eskatzen zuen herri-lurretako azalera okupatzea antzeko zundaketak egiteko eta, berriki, aho batez onetsi du mozio bat, babesa emateko zundaketei buruzko kezka adierazi eta harrobiko fronteak irekitzeko aukeraren aurka agertu diren herriei.

Almandozen beste fronte bat irekiz gero herria erauzketako bi fatxaden artean hesituta geldituko litzateke, eta Arizkun-Elbeteko kasuan proposatutako kokapenak jardueretako eta etxebizitzetako zonaldeetan daude.

Berriki, Parlamentuko ordezkari bat Almandoz eta Elbete herrietara joan da bisitan eta informazio zehatza jaso du zundaketen proiektuei eta leku horien hirigunetako mugetan dauden erauzketako fronteak irekitzeak ukituko lituzkeen zonaldeei buruz.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Almandoz eta Arizkun-Elbete herrien eskaerei erantzun diezaien, zundaketen baimena geldiarazte aldera.

Nafarroan, 2022ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko maiatzaren 3an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan.

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du

1. Osasun Mentalerako aurrekontuaren gorkada nabarmena lor dezan.

2. Estrategia berezi eta berritzaile bat ezar dezan haur eta gazteen osasun mentaleko problemei heltzeko eta horiek artatzeko. Horretarako, nahitaez jo beharra dago Oinarrizko Osasun Laguntzara, osasun mentaleko zerbitzu espezializatuak zamagabetzeko.

3. Oinarrizko Osasun Laguntza sendotzearen horni dezan psikologiako zerbitzu bereziz, eragin-kortasuna frogatu baitute osasun mentaleko problemen kasu arin eta moderatuen % 70ean.

4. Ziurta dezan zerbitzuak osasungintzako profesionalez hornituta egotea, psikiatriako eta psikologiako espezialitateak barne, egungo eskari guttiari erantzuteko.

5. Osasun Departamentutik bultzatzen den Nafarroako Foru Komunitate osoan sare-lana egitea

baliabide komunitario ezberdinekin: Oinarrizko Osasun Laguntzako osasungintza-langileekin, osasun mentaleko zentroetako osasungintza-langileekin, gizarte-zerbitzuekin, ikastetxeekin, gizarte-erakundeekin eta abarrekin.

6. Berritze-lana egin dezan, haur eta gazteen zuzen hurbileko baliabide berariazkoak sortuz, irisgarritasun handiagoa eskainiko dutenak, bai eta hurbilagoz ere haien eskaera, zalantza, beldur, antsietate, desorientazio eta abarretara.

7. Osasun-etxe guztietan prestakuntza-programak abiaraz ditzan, arreta pediatrikoa sendotzeaz gain.

8. Ikastetxe guztietan prestakuntza-programak ezar ditzan, irakasle, orientatzaile eta populazio-sektore hau artatzen duten gainerako profesionalen zuzendua.

9. Osasun mentaleko problematika eta laguntza-baliabide eskuragarriak ikusarazteko eta horietaz sentsibilizatzeko kanpainak taxutu eta jendearenganatu ditzan.

10. Informazio-kanpainak egin ditzan, gurasoak kontzientziatze aldera sare sozialek haur eta gazteengan duten eraginaz eta horiek internet eta teknologiek egiten duten erabileraz helduak jakitun izatearen beharraz.

11. Ohartaraztea pertsonen osasun mentalak beharrezkoa duela bizitzako lehen urteetan jorratuko den esku-hartze bat, garai horretan tankertzen baita haurren oinarri emozionala".

Iruñean, 2022ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Vianako Andre Maria eliza administrazio publikoei lagatzeari buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Vianako Andre Maria eliza administrazio publikoei lagatzeari buruzkoa (10-22/PES-00147).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien arteko lurralde banaketarako proposamenean, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko "Kultur industriaren errebalorizazioa" izeneko 2. osagaiaren esparruan, Kulturako Konferentzia Sektorialaren esku uzteko 2022ko eta 2023ko

aurrekontu-ekitaldietan, 93.924.434 eta 21.498.777 euroko zenbatekoekin hurrenez hurren, Nafarroari guztira 959.861,53 euro dagozkio. Proposamena baimentzen duen erabakian agertzen diren baldintzek honako hau ezartzen dute:

«Horretarako, Autonomia Erkidegoekin, diputazio probintzialekin eta toki entitateekin, bai eta erlijio erakundeekin eta beste titular pribatu batzuekin ere, Kultur Intereseko Ondasunetarako babes indibidualizatua duten ondasun higiezin gainean jardunen da; azken kasu horretan eskatuko da beste titular pribatu batzuen higiezinak administrazio publikoei lagatzea, gutxienez ere 50 urteko eperako.

Turismo-azpiegiturako zona bat egon beharko da ondasunaren 30 kilometroko ingurubiran; edo, bestela, azken 5 urteetan populazio-jaitsiera etengabea jasandako zona bat izan beharko da».

Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Ikusirik Nafarroako Gobernuak iragarri duela aipatu baliabideak Vianako Andre Mariaren eliza zaharberritzera bideratuko dituela, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Elizarekiko lankidetzak akordioan zera jasotzeko, higiezinak administrazio publikoari 50 urterako lagatzea?

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 30 kilometroko ingurubiran turismo-zonarik ez daukaten Nafarroako kultur intereseko ondasunei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, 30 kilometroko ingurubiran turismo-zonarik ez daukaten Nafarroako kultur intereseko ondasunei buruzkoa (10-22/PES-00148).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien arteko lurralde banaketarako proposamenean, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko "Kultur industriaren errealizazioa" izeneko

2. osagaiaren esparruan, Kulturako Konferentzia Sektorialaren esku uzteko 2022ko eta 2023ko aurrekontu-ekitaldietan, 93.924.434 eta 21.498.777 euroko zenbatekoekin hurrenez hurren, Nafarroari guztira 959.861,53 euro dagoz-kio. Proposamena baimentzen duen erabakian agertzen diren baldintzek honako hau ezartzen dute:

«Horretarako, Autonomia Erkidegoekin, diputazio probintzialekin eta toki entitateekin, bai eta erlijio erakundeekin eta beste titular pribatu batzuekin ere, Kultur Intereseko Ondasunetarako babes indibidualizatua duten ondasun higiezin gainean jardunen da; azken kasu horretan eskatuko da beste titular pribatu batzuen higiezinak administrazio publikoei lagatzea, gutxienez ere 50 urteko eperako.

Turismo-azpiegiturako zona bat egon beharko da ondasunaren 30 kilometroko ingurubiran; edo, bestela, azken 5 urteetan populazio-jaitsiera etengabea jasandako zona bat izan beharko da».

Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zein dira Nafarroan turismo-zonarik 30 kilometroko ingurubiran ez daukaten kultur intereseko ondasunak?

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Eliza Katolikoaren jabetzakoak diren kultur intereseko ondasunetan meza emateko denbora doako sarraldietarako denboraren parte gisa zenbatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Eliza Katolikoaren jabetzakoak diren kultur intereseko ondasunetan meza emateko denbora doako sarraldietarako denboraren parte gisa zenbatzeari buruzkoa (10-22/PES-00149).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko urtarriaren 15eko 1/2019 Foru Legea betetzeari dagokionez, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Eliza Katolikoak, kultur intereseko ondasunen jabe den aldetik, aipatu higiezinetara bisita kulturala egiteko doako sarraldietarako denboraren parte gisa zenbatzen al du meza emateko denbora?

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Eliza Katolikoak kultur intereseko ondasuntzat hartzen diren higiezinak doan bisitatzeko eskubidea betetzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Eliza Katolikoak kultur intereseko ondasuntzat hartzen diren higiezinak doan bisitatzeko eskubidea betetzeari buruzkoa (10-22/PES-00150).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko 1/2019 Foru Legea betetzeari buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Xehetasunak, kultur intereseko ondasuntzat hartzen diren higiezinetara doako bisita egiteko eskubideari dela-eta lege horrek xedatzen duena betetzearren Kultura Departamentuak Eliza Katolikoarekin izandako komunikazioei eta burututako jarduketari buruzkoak.

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, zaharberritze-obrak finantzaketa publikoarekin egiteko Kultura eta Kirol Departamentuak entitate publikoekin dituen lankidetzahitzarmenei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, zaharberritze-obrak finantzaketa publikoarekin egiteko Kultura eta Kirol Departamentuak entitate publikoekin dituen lankidetzahitzarmenei buruzkoa (10-22/PES-00151).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko 1/2019 Foru Legea betetzeari dagokionez, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

• Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuak egoki eta onargarriz jotzen al du entitate pribatuekin lankidetzahitzarmenak egitea finantzaketa publikoaren bidez zaharberritze-obrak egiteko, non ezartzen diren klausulen arabera “bi aldeek konpromisoa hartzen dute proiektuaren exekuzioari buruzko informaziorik ez ematekoa, horretarako adostasunik ezean”?

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Errepide Planaren egoerari eta eginiko jarduketei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Errepide Planaren egoerari eta eginiko jarduketei buruz Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00152).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dakion.

Zer jarduketa egin du departamentuak, eta zertan da Nafarroako Errepideen Plana?

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, populazio-jaitsiera etengabea izan duen zona batean dauden Nafarroako kultur intereseko ondasunei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, populazio-jaitsiera etengabea izan duen zona batean dauden Nafarroako kultur intereseko ondasunei buruzkoa (10-22/PES-00153).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien arteko lurralde banaketarako proposamenean, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko "Kultur industriaren errebalorizazioa" izeneko 2. osagaiaren esparruan, Kulturako Konferentzia Sektorialaren esku uzteko 2022ko eta 2023ko aurrekontu-ekitaldietan, 93.924.434 eta 21.498.777 euroko zenbatekoekin hurrenez hurren, Nafarroari guztira 959.861,53 euro dagozkio. Proposamena baimentzen duen erabakian agertzen diren baldintzek honako hau ezartzen dute:

«Horretarako, Autonomia Erkidegoekin, diputazio probintzialekin eta toki entitateekin, bai eta erlijio erakundeekin eta beste titular pribatu batzuekin ere, Kultur Intereseko Ondasunetarako babes indibidualizatua duten ondasun higiezin gainean jardunen da; azken kasu horretan eskatuko da beste titular pribatu batzuen higiezinak

administrazio publikoei lagatzea, gutxienez ere 50 urteko eperako.

Turismo-azpiegiturako zona bat egon beharko da ondasunaren 30 kilometroko ingurubiran; edo, bestela, azken 5 urteetan populazio-jaitsiera etengabea jasandako zona bat izan beharko da».

Horri buruz parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

• Zenbat dira Nafarroan azken 5 urteetan populazio-jaitsiera etengabea izan duen zona batean dauden kultur intereseko ondasunak? Horien zerrenda xehakatu jaso nahi dugu.

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Mendigorriko hondakin organikoen biometanizazio plantaren ingurumen-baimen integratuari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Mendigorriko hondakin organikoen biometanizazio plantaren ingurumen-baimen integratuari buruzkoa (10-22/PES-00154).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren martxoaren 7ko 63E/2022 Ebazpenaren bidez eguneratu egin da Mendigorriko udal mugapean dagoen hondakin organikoen biometanizazio plantaren instalaziorako ingurumen baimen integratua. Planta horren titularra Bioenergía Mendi, SL da.

Ebazpen horren bidez eguneratu egiten da Uraren zuzendari nagusiaren azaroaren 17ko

2321/2009 Ebazpena, zeinaren bidez ingurumen baimen integratua eta lurzoru urbanizaezineko jarduerarako baimena eman ziren, eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eman zen, baterakoa, Granja El Saso, SLren titulartasuneko txerri ustiatzirako eta Bioenergía Mendi, SLren titulartasuneko hondakin organikoen biometanizazio plantarako.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Egia al da 2020an Mendigorriko plantan tratatuak izateko sartu ziren tonak guztira 68.707,74 izan zirela?

2.- Egia al da 2022ko martxoaren 7ra arte ingurumen baimen integratuak ez zuela baimentzen plantan 28.991 tona baino gehiago jaso eta tratatzerik?

3.- Zenbat tona hondakin tratatu dira plantan 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020 eta 2021. urteetan?

4.- Zer neurri hartu ditu ingurumen arloan eskumena duen departamentuak 2015etik 2021era bitartean, ekidite aldera plantan tona baimenduak baino gehiago tratatzea?

5.- Bioenergía Mendi SLren aurkako zehapen-espediterik abiarazi al da, Mendigorriko plantan tratatzeko baimendutako tona kopurua gainditzeagatik?

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Fiterora doan NA 6900 errepidea hobetzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Fiterora doan NA 6900 errepidea hobetzeari buruz Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00155).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Lurralde Kohesiorako Departamentuan egokitzapen edo proiektu berririk ba al dago Fiterora doan NA 6900 errepidea hobetzeko, gutxi gorabehera 17. kilometrotik aurrera?

Erantzuna baiezkoa bada, zer aukera planteatzen dira, eta zer egutegi-aurreikuspen dago obrak egiteko? Aurreikusi al da errepide plan berri sartuak izatea?

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Bartzorderako izendatu beharreko lau kide hautatzeko.

HAUTAGAIETAKO BAT ERRETIRATU DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaia, 2022ko maiatzaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Errekonozimendu eta Erreparaziorako Bartzorderako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko lau kide hautatzeko arauekin bat, zeinak 2021eko maiatzaren 31ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (73. NPAO, 2021-06-01ekoa), 2021eko abenduaren 13an EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak proposaturiko hautagaia, Javier Miranda Erro jauna, aldarrikatu zen.

Hautagaia proposatu duten taldeek eta elkarteak idazki bat aurkeztu dute 2022ko apirilaren

28an aipatu hautagaia erretiratze aldera (1732 Erregistroko sarrera-zenbakia).

Aipaturiko idazkia ikusita, honakoa hau ERABAKI DA:

1. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Bartzorderako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko lau hautagaien hautaketarako Javier Miranda Erro jaunaren hautagaitzaren erretiratzea jasotzat ematea eta erabaki hau berari helaraztea. (10-21/ELC-00003).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

